

Dermatitis seborreikoa

Dermatitis seborreikoa gune koipetsuetan agertzen den larruazalaren asaldura da. Ez da kutsakorra.

Nolabaiteko alde aurretiko joera duten pertsonak jasaten dute. Urteak irauten ditu. Aldiro agerraldi modura ager daiteke.

Non eragiten du?

Larruazalaren zenbait gunetan deskamazio-plaka gorriak (larruazal lehorreko zatitxoak goialdean) ikus daitezke. Azkura eragin dezake.

Gehien eragindako guneak honakoak dira:

Haurretan:

- Buruko larruazala (Bularreko haurretan: esnezarakarra).
- Belarriak.
- Tolesdurak: lepo, besape, zilbor eta batez ere pixoihal aldean.

Helduetan:

- Buruko larruazala.
- Aurpegia: sudurraren alboetan, aho-sudur tolesturan, bekainetan eta betazaletan (ertza gorri jarri eta betileen artean deskamazioa agertzen da).
- Bular eta bizkarraren erdigunea.
- Tolesturak: besapeetan, bularren azpian edo izterondoetan.

Zerk hobetzen du Dermatitis seborreikoa?

- Eguzkiak.
- Urak eta xaboiak prozesu arinetan.
- Detergenterik gabeko eta pH neutro edo azidoko larruazalerako garbitzaileak.

Zerk areagotzen du Dermatitis seborreikoa?

Nahigabeek, ardurek, urduritasunek eta estresak.

Udazken-neguan aurpegi eta buruko larruazaleko lesioek okerrera egiten dute.

Udan tolesturetako lesioek okerrera egiten dute.

Alkoholodun edo koipe askoko kosmetikoek.

Alkoholodun edariak.

Elikagai pikanteek edota espezie asko dutenek.

Zein da tratamendua?

Dermatitis seborreikoa ez da osatzen baina lesioak kontrola ditzakegu. Medikuak adieraziko dizu kokalekuaren eta adinaren arabera tratamendua.

Haurrak

- Buruko larruazala: Parafina likidoa edota oliba-olioa eta, ondoren, sakonki orraztu zarakarraren gainetik.
- Beste kokaguneak: onddoen kontrako kremak edota lekuko kortikoide oso arinak.

Helduak

- Buruko larruazala: astean 2-3 bider erabili onddoen kontrako xanpuak, harrikatzen edo ikatz brearekin (zikindu eta txarto usaintzen dute), zink pitirionarekin, iktioli edota Selenio sulfuroarekin.
- Aurpegi eta gainontzekoak: onddoen kontrakoak edota eragile keratolitikoak, agerraldi bizien kasuan, kortikoide arineko krema egun gutxi batzuetan.

Agerraldi berriei aurre hartzeko, eragileak saihestu behar dira eta larruazal osasuntsua zaindu egunero ciclopiroxolamina, piroctolamina, iktioli, ipuru edo keluamidadun kremak erabiliz.

